ZIGOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ZIGOITIA
ARABA
DATA
FECHA 15 MAR 2017
SARRERA/ENTRADA 423
IRTEERA/SALIDA ..........................

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
Gizarte Politiketako Sailburuordetza
Familia Politikarako eta Komunitate
Garapenerako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de Políticas Sociales
Dirección de Política Familiar y Desarrollo
Comunitario

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
2017 MAR. 13
SARRERA Zk. | IRTEERA Zk. 96148

**GAIA: Izatezko Bikoteen Erregistroa**
**ASUNTO: Registro de Parejas de Hecho**

Alkate jauna/andrea, agur:

Idazki hau zure udalerriko izatezko bikoteen erregistroan lehenengo eta ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan izena eman nahi duten bikoteek aurkeztu behar duten dokumentazioari buruzkoa da.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak izatezko bikoteak arautzeko 2/2013 Legearen 2. artikulua aldatu du, honako hau ezarriz:

> Horrela, bada, izatezko bikotea inskribatzeko, bikotekideetatik batek behintzat euskal auzotasun zibila izan beharko du.

Aldaketa hau izan arte baldintza zen bikotekide batek behintzat Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eduki behar zuela egoitza, eta berau erroldatze-ziurtagiriarekin akreditatzen zen.

Orain euskal auzotasun zibila eskatzen da. Auzotasun zibila Kode Zibilaren 14 eta 15. artikuluek arautzen dutenarekin bat etorriz eskuratu, iraunarazi eta galdu egiten da.

Ondorioz, bikote bat Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatu nahi bada nahitaezkoa da bikotekideetatik batek behintzat euskal auzotasun zibila izatea eta akreditatzea.

Jarraian azaltzen dizut euskal auzotasun zibila akreditatzeko beharrezkoa den dokumentazioa:

- Espainiako nazionalitatea jaiotzaz duten eta EAEn bizi diren pertsonak:
  - EAEn azken 10 urteotan jarraitutasunez bizi izana egiaztatzen duen erroldatze-ziurtagiria, jaiotza-ziurtagiri literalarekin batera, edo
  - Jaiotza-ziurtagiri literala, adierazi egiten duena euskal auzotasun zibila borondatez hartu dela Erregistro Zibilean, EAEn 2 urte baino gehiago jarraitutasunez bizi izan delako.

Estimado alcalde/Estimada alcaldesa:

Le envío esta carta en relación a la documentación a presentar por las parejas que habiéndose inscrito en el registro de parejas de hecho de su municipio quieren inscribirse en el Registro de Parejas de Hecho de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, ha modificado el artículo 2 de la Ley 2/2013, reguladora de las parejas de hecho, indicando:

> A tal efecto podrán inscribirse aquellas parejas de hecho en las que al menos uno de sus integrantes tenga vecindad civil vasca.

Hasta antes de esta modificación el requisito era que uno de los integrantes tuviera su vecindad administrativa en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la cual se acreditaba con el certificado de empadronamiento.

Ahora se exige la vecindad civil vasca. La vecindad civil se adquiere, se conserva y se pierde conforme a lo establecido en los artículos 14 y 15 del Código Civil.

Por tanto, para que una pareja se pueda inscribir en el Registro de Parejas de Hecho de la Comunidad Autónoma del País Vasco, es necesario que al menos uno de sus miembros tenga vecindad civil vasca y la acredite.

A continuación, le expongo la documentación necesaria para la acreditación de la vecindad civil vasca:

- Personas con nacionalidad española de nacimiento residentes en la CAPV:
  - Certificado de empadronamiento acreditativo de la residencia continuada en la CAPV durante los 10 últimos años y certificado literal de nacimiento, o
  - Certificado literal de nacimiento donde conste la adquisición voluntaria de la vecindad civil vasca ante el Registro Civil por residencia continuada en la CAPV durante 2 años.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tlef. 945 01 93 92 – Fax 945 01 63 40– e-mail: familia@euskadi.eus

- Espainiako nazionalitatea jaiotzaz duten eta EAEn bizi ez diren pertsonak:
  - Jaiotza-ziurtagiri literala, adierazi egiten duena euskal auzotasun zibila hartu dela, edo
  - EAEn 10 urte jarraitutasunez bizi izana egiaztatzen duen erroldatze-ziurtagiria, ondorengo erroldatze-ziurtagiri guztiak gaur arte, eta jaiotza-ziurtagiri literala.

- Espainiako nazionalitatea lortu duten pertsona atzerritarrak:
  - Jaiotza-ziurtagiri literala, adierazi egiten duena nazionalizazioaren egunean euskal auzotasun zibila hartu dela, edo
  - Espainiako nazionalitatea jaiotzaz duten pertsonentzat adierazitako edozein bide, betiere Espainiako nazionalitatea lortu denean beste auzotasun zibil bat hautatu bazuten.

Nolanahi ere den, auzotasun zibila ezingo da egiaztatu izena emateko eskaera aurkezten den eguna baino hiru hilabete lehenago emandako jaiotza-ziurtagiri literalen bidez; halaber, ez dute baliorik izango egun hori baino hilabete lehenago emandako erroldatze-ziurtagiriek.

Informazio guzti hau Eusko Jaurlaritzaren webgunean dago: www.euskadi.eus.

Edozein galdera edo iradokizunik izatekotan ez izan zalantzarik Erregistroak zure lurralde historikoan duen bulegoarekin harremanetan jartzeko.

Eskerrik asko zure laguntzagatik. Jaso ezazu nire agurra.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 7a.

- Personas con nacionalidad española de nacimiento no residentes en la CAPV:
  - Certificado literal de nacimiento donde conste la vecindad civil vasca, o
  - Certificado de empadronamiento acreditativo de la residencia continuada en la CAPV durante diez años, certificados de empadronamientos posteriores hasta hoy y certificado literal de nacimiento.

- Personas extranjeras que han adquirido la nacionalidad española:
  - Certificado literal de nacimiento donde conste la adquisición de la vecindad civil vasca en el momento de la nacionalización, o
  - Cualquiera de las formas indicadas para los nacionales de nacimiento si en el momento de obtener la nacionalidad española optaron por otra vecindad civil.

No tendrán validez a efectos de acreditar la vecindad civil los certificados literales de nacimiento expedidos con una antelación superior a tres meses respecto a la fecha de presentación de la solicitud de inscripción ni los certificados de empadronamiento emitidos con más de un mes de antelación respecto a esa fecha.

Esta misma información está en la página web del Gobierno Vasco: www.euskadi.eus.

Para cualquier pregunta o sugerencia no duden en ponerse en contacto con la oficina del Registro de su territorio histórico.

Aprovecho la ocasión para saludarle y agradecerle su colaboración.

Vitoria-Gasteiz, 7 de marzo de 2017.

Sin. / Fdo.: ERNESTO SAINZ LANCHARES
FAMILIA POLITIKARAKO ETA KOMUNITATE GARAPENERAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE POLÍTICA FAMILIAR Y DESARROLLO COMUNITARIO